



TELESFORO
MONZON
eLab

2022 MEMORIA



AURKIBIDEA:

TM eLab Euskal Herrigintza Laborategia

**Urte honetan aurrera eraman edo hasitako
proiektuak**

**Naziometroa: Subiranotasun nahiaren
inguruko soziometroa**

Txillardegi Gogoeta Gunea

Nazioartea eta Euskal Herria Gogoeta Gunea

Euskal Herria 2036 Prospektiba

Partekatuz

Ongizate adierazleak

KLIMARI BURUZKO HERRITARREN BATZARRA

Euskal Komunikabideak eta Nazio izaera

Saretzea eta Komunikazioa

Gaindegia

Bestelakoak

Saretzea eta Komunikazioa

TM eLab Euskal Herrigintza Laborategia:

SARRERA:

TM eLab Olaso Dorrea Fundazioaren ekimena da. Telesforo Monzonen espirituari jarraikiz, laborategiaren asmoa EHko etorkizunari buruz aritzeko gogoetak sustatzea da, elkarlanean.



TM eLab-en helburua herri gisa ditugun erronka estrategikoei loturiko gogoeta sustatzea da eta erantzun berritzaileak bilatzea. Nazioartean erreferentzia aurreratuenak bilatuz eta Euskal Herrian martxan dauden eraldaketa prozesuak aztertuz. Horrela jardunbide eta politika konkretuei buruzko kalitatezko proposamenak eginez. Horretarako lan-talde trinko eta egonkorak baino helburu zehatzak dituzten lan-prozesu denboran mugatuak lantzen ditugu, misio zehatzei zuzendurikoak.

Barne antolaketa:

Jardunaldi honetan, laborategiak bere egituratzearen jarraitu du. Maila horretan Batzorde Exekutibo bat izendatu da ondorengo pertsonen osatua: *Iratxe Esnaola, Urko Aiertza (Zuzendaria), Pello Otxandiano, Igor Ortega, Rafa Diez eta Malen Dominguez (Programa Koordinatzailea).*

Era berean urteko plangintza eta programa garatzeari ekin dio, horretarako maiztasun batez bilkurak burutuaz.

Kanpo harremanak:

Urtean zehar Laborategiak Euskal Herriko hainbat eragilerekin egitasmoak partekatu ditu eta aztertu, hala nola:

- Eusko Ikaskuntza.
- Agirre Lehendakari Center.
- Kontseilua
- UEU
- Sabino Arana Fundazioa
- Pete Cenarrusa Foundation
- Mondragon Unibertsitatea eta bertako Herrigintza graduondoa.
- GEZKI
- Parte Hartuz EHU-UPV.
- Subiranotasuna Europako Herrietan Masterra, EHU-UPV.
- Gaindegia.
- Euskal Herriko ekonomilarien Biltzarra.
- Arantzazuko Laborategia (bertako aholku batzordeko kide delarik laborategia egun).
- Jakín
- Berghof Foundation
- Common Weal
- Fundació Josep Irla

Laborategiaren administrazioa:

Bere jarduera guztiak aurera atera asmoz laborategiak gutxieneko dedikazio profesional bat du. Hain zuzen ere Zuzendari bat dedikazio partzialarekin eta Programa Koordinatzaile bat dedikazio osoarekin.

Zuzendariaren lana Laborategiko Batzorde Exekutiboari jarraikiz Laborategiko egitasmoak eta jardunak zuzentzea da. Programa Koordinatzailea, laborategiko programen koordinazioaz eta zuzendariarekin batera laborategiaren martxa kudeatzeaz arduratzen da.

URTE HONETAN AURRERA ERAMAN EDO HASITAKO PROIEKTUAK

Aurrera eraman edo martxan diren proiektuak:

Gogoeta / Prospektiba:

- Naziometroa.
- Txillardegi Gogoeta Gunea
- Euskal Herria eta Nazioartea Gogoeta Gunea.
- Euskal Herria 2036 Prospektiba
- Euskal nazioaren Irudikapena euskal komunikabideetan.
- Euskal Proceedings
- Gaindegia

Partekatzea/transferentzia:

- Partekatuz/Sharing

Esperimentazioari begirako proiektuak:

- Ongizate adierazleak.
- Klima Asanblada eta herri batzarrak.

Naziometroa: Subiranotasun nahiaren inguruko soziometroa:

Euskal Herria mailan soberanismo eta independentzia asmoek politikaren erdian jarraitzen badute ere, ez da oso ezaguna soberanismoa, autogobernua, independentzia eta horiek zeharkatu ditzaketen gaien inguruko herritarren iritzia.

Naziometroaren bidez Euskal Herria herritarrek gai hauen inguruan dituzten iritzi eta hautemateak aztertu nahi dira. Eta hori modu jarraian egin nahi da. Hau da, neurketa puntual edo koiuntural batetik haratago, denboran luzatuko den barometro bat osatu da.



NAZIOMETROA

Euskal Burujabetzaren Barometroa

www.naziometroa.eus

Naziometroaren ikergaiak ondorengoak izando dira:

- Egungo abagune politikoan Euskal Herri osoa bilduko lukeen Estatu/Errepublika baten aurreko jarrerak neurtzea.
- Independentzia nahiaren neurketa.
- Jarrera horien atzean (aldekoak zein kontrakoak, zein iritzi sorturik gabekoena) egon daitezkeen hainbat iritzien neurketa (ekonomikoak, politikoak, sozialak, e.a.)
- Independentziarako arrazoi nagusia(k) zehaztea.
- Unionismorako arrazoi nagusia(k) zehaztea.
- Atxikimendu gehien jaso dezakeen hitz edo kontzeptuen neurketa (Euskal Estatua vs Euskal Errepublika...)
- Subirautza nahia eremuka (edo subirautza eremuka garatuta subirautza orokorrari egin diezaiokeen ekarpena).
- Jarrera eta iritzi horien ezaugarritze soziodemografikoa egitea.

Euskal Herria osatzen duten eremu instituzionalekiko egokitzapenak egingo dira horretarako.

Urtean bi inkesta (udazkena eta udaberria) egingo dira, maiztasunak ziurtatuko baitigu iritzi tendentziak ongi ulertzea.

Elkarlanean oinarritutako ekimena:

Honako egitasmoa aurrera ateratzeko OLASO DORREA FUNDAZIOA ETA UPV/EHUren arteko lankidetzak akademikorako hitzarmena sinatu da.

Proiektua aurrera eramateko Olaso Dorrea Fundazioaren Telesforo Monzon laborategiak (TM eLab) Parte Hartuz EHUko ikerketa taldeko kideekin Barometroaren Ikerketa Batzordea osatu dute, bertara Nafarroako zein Iparraldeko ikerlariak gehituaz.

Horrela Parte Hartuz ikerketa taldeak gehi Nafarroako zein Iparraldeko beste adituek, ikerketa batzordea osatu dute. Batzorde hau inkesten emaitzen irakurketa berariazkoa burutzeaz arduratuko da, bai eta honek beharrezko rigore zientifikoa izateaz.

Batzorde Zientifikoaren osaketa: Julen Zabalo, Arkaitz Fullaondo, Carlos Vilches, Asier Etxenike, Igor Ortega eta Iduzki Soubelet.

Fundazioaren gain egon da ikerketa batzordeak diseinatutako landa lana aurrera eramateaz arduratuko den inkesta zerbitzua, bai eta naziometroaren emaitzen kaleratze kostuak eta abar.

Argitaratutako lanetan agerraraziko da lanon sorgunea hitzarmen honetan dagoela eta parte hartu duten pertsonen izenak aitortuta.

AURTENGO 4. NEURKETA eta 1. AZTERKETA

-4. NEURKETA publikatu zen 2022ko Ekainean.

Hemen:

<https://telesforomonzonlab.eus/2022-04-neurketa/>

Prentsa :

<https://telesforomonzonlab.eus/naziometroa-euskal-burujabetzaren-barometroa/#1658404417700-2ee1b673-a386>

-Azaroaren 23an Bilbaoko Bizkaia Aretoan, **Jardunaldiak antolatu dira, bertan NAZIOMETROAREN LEHEN AZTERKETA publiko eginaz.** Horrekin batera Eskozia eta Kataluniako hizlariak egon dira bai eta mahai inguru bat azterketaren inguruan gogoetatzeko.

Hizlarien artean izan ziren: Robin McAlpine, Nuria Franco-Guillén, Asier Etxenike, Floren Aoz, Xabier Barandiaran, Onintza Odriozola, Estitxu Garai, Txomin Poveda eta Josu Etxaburu.



Txillardegi Gogoeta Gunea: XXI. menderako Hizkuntza Politika.



XXI. mendearen lehen laurdenean murgildurik gaudela, mundu mailan sekula ezagutu ez den abiadako aldaketak ari dira ematen: robotizazioa, inteligentzia artifiziala, gauzen interneta, teknologia aurrerapenak, informazio joan-etorriak eta honen guztiaren ondorioz gizarte eraldaketa sakona, inoiz ezagutu gabeko abiada bizi gauzatzen ari dena gainera batetik; bestetik, bizidunen migrazio mugimenduek bai eta mugikortasunak zein gizarte batzuen zahartzeak biziki ari dira aldatzen ingurunea, Europan batik bat, urte gutxitan. Honek guztiak sekulako eragina izango du identitatearen erreproduzio sistemetan oro har eta, zer esanik ez, gurea bezalako komunitate/nazio gutxiagotuetan. Euskal Herrira etorrita, euskararen egungo normalizazio ereduak topea jo duenaren zantzuak nabariak dira bai hezkuntza arloan, bai helduen euskalduntzean edo erakunde publikoen normalizazio prozesuetan, kultur transmisioan edota esparru komunikatiboan, besteak beste; eta honek guztiak bere ondorioa du euskararen transmisioan eta bizi iraupenean, kale erabilera datuek adierazten duten bezala.

Hori guztia gutxi balitz, COVID-19ak eta beronekin etorritako itxialdiak joera hauek azkartu eta areagotu egin ditu, lehen hipotesia zena errealtate bihurtuaz.

Aipatu eraldaketa hauek guztiak kontuan izanik, euskararen normalizazioa helburu duen euskaltzaletasunak/abertzaletasunak ezinbestekoa du gogoeta sakon bat egitea. Paradigma aldaketen garaian bizi gara eta egoera berri horietara egokitzeko gaitasuna izateak berebiziko garrantzia izango du. XX. mendean sortutako hizkuntza politikak/ek ez dio(te) seguruenik errealtate berri honi erantzuteko ahalmenik.

Gelditu eta inguruetara begiratzeko garaia dugu euskararen normalizazio prozesuan, sistemikoak eta egiturazkoak diren eraldaketez ohartu eta errealtate honen aurrean euskal botere politikoak (euskal erakundeek) euskararen normalizazioan XXI. mendean nola eragin behar duen sakonduz. Aztertu beharra dago botere politikoak nola eta zertarako baliatu euskararen normalizazio osoa erdiesteko. Eztabaida ez baita asko/gutxi aurreratu dugun, botila erdi betea edo erdi hutsa dagoen, baizik eta XXI. mendeko erronken aurrean zer hizkuntza politika behar dugun aurrera egiteko.

Horretarako esan bezala, euskararen normalizazio prozesua azkartzeko beharrezkoa den XXI. menderako hizkuntza politika eztabaidatu eta ahal bada

ondorio nagusi batzuk ateratzeko Gogoeta Gune bat sustatu da Telesforo Monzon Euskal Herrigintza Laborategitik, Txillardegi Gogoeta Gunea deritzona. Herri eztabaida sakon eta zabal bati abiapuntua ipintzeko gogoeta gune bat.

Horrela, gogoetarako gai nagusiak dira:

- Normalizazio prozesuaren ikuspegi politikoa, sistemikoa eta egiturazko batetik abiatutako diagnostikoak egin eta aurrera begirako ikuspegiak lantzea. Horrela, euskararen normalizazioari buruzko etorkizuneko erronken inguruko gogoeta eta proposamenak landuz.
- Euskal Herriaren nazio eraikuntza prozesuaren baitan euskararen normalizazioak egin dezakeen ekarpena eta izan beharreko lekua aztertzea. Maila horretan, hizkuntzaren estatusa eta euskal erakundeen papera sakonki aztertuz.
- *Proposatzen den lanketa Euskal Herri osoko ikuspegiarekin lantzekoa litzateke. Funtsean, euskararen normalizazio prozesuaren ikuspegi propioa lantzea eta euskarak Euskal Herriaren nazio eraikuntza prozesuan izan beharreko lekua zehaztea, Euskal Herri osoan berdin eraiki beharreko "paradigma" bailitzateke. Horrek ez luke esan nahiko, noski, ikuspegi horretatik erator litezkeen proposamen edo diskurtsoak mimetikoki aplikagarriak izango liratekeenik.*



2022ko Mintegiak eta Jardunaldiak :

1. MINTEGI IREKIA: EUSKARA ETA TEKNOLOGIA BERRIAK

Mintegiaren helburua izan zen teknologia berriak ekarriko dituzten eraldaketa sozialak aztertzea eta horren aurrean hizkuntza politikan sortzen diren erronken inguruan eztabaidatzea.

HIZLARIAK:

-Josu Apodaka

-Mikel Arregi



2.- XXI MENDERAKO HIZKUNTZA POLITIKA JARDUNALDIAK Txillardegiren 10 urteurrenean.

Urriaren 19an Telesforo Monzon euskal herrigintza laborategiko Txillardegi Gogoeta gunek, Jakin-ek eta UEUK XXI.mendeko Hizkuntza Politikaz jardunaldia antolatu genuen.

40 urte pasa dira EAEn 1982ko Euskararen Legea onartu zenetik eta 35 bat Nafarroako Euskararen Legetik. Ordutik gaur arte mundua, eta Euskal Herria ondorioz, nabarmen aldatu duten prozesuek gurutzatzen dituzte: robotizazioa, gauzen Interneta, inteligentzia artifiziaia...

Aldaketa guzti horiek eragina izan dute gure balio sistemetan, eta are gehiago gurea bezalako nazio gutxiagotueta. Horren aurrean, hizkuntzaren arloari erreparatuta, behar berrien aurrean ekitea ezinbestekoa da. Beste modu batera esanda, testuinguru berri honetara egokituta hizkuntza politika batean pentsatzen hasi beharra dugula konturatu gara.

Jakin Fundazioa eta UEUekin batera aipatutako kezka partekatu eta problematika horren inguruan pentsatu eta ekiteko plaza eskaintzea izan da jardunaldiaren helburua.



<https://telesforomonzonlab.eus/xxi-mendeko-hizkuntz-politikaz/>

Nazioartea eta Euskal Herria Gogoeta Gunea:

TM eLab laborategiak eta Sabino Arana Fundazioak, nazioartearen inguruko gogoetarekin aurrera jarraitzen dugu EHren inguruko gogoeta zabalduz.

Aurten Donostiako Udako Unibertsitatean, **Euskal Nortasunaren Erronkak XXI mendean** ikastaroa antolatu da SAF, eta Cenarrusa Fundazioarekin batera. 2022eko uztailaren 5 eta 6an Donostiako Miramar Jauregian burutu ziren gogoeta jardunaldiak, UPV/EHuren udako ikastaroen programazioaren barruan, Iñaki Goirizelaiaren zuzendaritzapean .



sabino
arana
fundazioa

CENARRUSA
FOUNDATION for BASQUE CULTURE

Informazio gehiago hemen:

<https://telesforomonzonlab.eus/4-mintegia-euskal-nortasunaren-erronkak-xxi-mendean/>

TELESFORO
MONZON
eLab

Euskal
Herrigintza
Laborategia
Laboratory
for
Basque
state-building

EUSKAL HERRIA 2036 PROSPEKTIBA LANA



TMeLabek sustatutako *Covid-19, eta Ondoren Zer?* gogoeta gunean, pandemia aurretik zetozen joera edo tendentzien katalizatzaile gisa jokatzen ari dela izan da ondorioztatutako elementuetako bat.

Krisi askotarikoak markatutako momentu historiko berezi batean bizi gara, munduan, Europan eta Euskal Herrian, eta horregatik arnas luzeko ikuspegi estrategikoa behar du gure herriak.

Klima-larrialdiaren, aldaketa demografiko globalaren, segurtasun arriskuen (zahar zein berri), hala nola berrikuntza teknologiko esponentzialen (gizakia eta makinaren arteko konbergentzia...) inpaktu sakonak, zabalak eta gero eta handiagoak ikusten ari gara munduan zehar. Egungo gizartearen adierazle nagusienetakoak aldakortasuna, ziurgabetasuna, konplexutasuna eta anbiguotasuna (VUCA) dira. Hondamendi naturalak handitzen ari dira eskalan eta irismenean. Ehunka milioi pertsona ari dira mundu osoan zehar migratzen, dela klimarekin, indarkeriarekin, gosetearekin edo pobreziarekin lotutako hondamendiengatik. Gure ingurune estruktural, natural eta digitalean gertatzen ari diren aldaketek gero eta arrisku handiagoak sortzen dituzte. Litekeena da hiru joera horien ondorioek gora egitea kopuruan eta konplexutasunean, hurrengo urteetan.

Era berean, azken urteotan globalizazio neoliberalaren ondorioz gizarte arrakalak handitu egin dira eta ondorengo urteetan inteligentzia artifizialak, bioteknologiak zein digitalizazioak sortuko dituzten eraldaketa sakonek ondorio

zaugarriak izan ditzakete oro har munduan, horrek ondorio bereziak dituelarik gurea bezalako nazio eta identitate gutxiagotuetan.

Mundu osoan segurtasunari egiten zaizkion erronkek gure gizarte-ehuna, gure azpiegitura fisikoa eta gure gizartea gero eta digitalagoa mehatxatzen dute.

Guzti honen aurrean Euskal Herria erresilienteago baten eraikuntza ez da bakarrik ezinbesteko behar bat, baizik eta aukera bat ere. Ingurumena zaintzea, gizarte inklusibo bat eraikitzea, herritarrak eta erakundeak gaitzea eta gure kultura eta identitatea garatzea, ekonomia eta gizarte iraunkorragoa eta planeta oparoagoago baterako baldintzak sortzeko aukera bat ere bada.

Resilientzia kontzeptuak hiru gaitasun dakarki berarekin. Lehena, iraunkortasunerako gaitasuna, gure bizitza eta garatzea ematen ari diren aldaketa guztien aurrean. Bigarrena egokitzapenerako gaitasuna da, hau da nola jarraitu garatzen baina era berean nola egokitu inguruan ematen ari diren baldintzen baitan. Et hirugarrena eraldaketarako gaitasuna, bereziki garrantzitsua bizi dugun une historikoan, nola aldatu daramagun ibilbidea edo nola hartu norabide berri bat, eraldaketa honen bidez izaten jarrai dezagun.

Klima-larrialdi hemen da

Klima larrialdiaren ondoriozko mehatxuak gero eta larriagoak dira hemen eta orain, - uholdeak, lehorteak, goseteak eta beste hondamendi natural batzuen kasuak eta inpaktuak areagotu egin direla frogatuta dago -, eta, horregatik, ezinbestekoa da ingurune eta komunitate erresilienteagoa lortzeko beharrezko neurriak hartzen joatea herri gisa. Ez dago denbora galtzerik, trantsizio energetikoak ez du atzera bueltarik eta askotariko tresnak adostu eta prestatu behar dira, eta bide horretan eztabaida sakon bat emateko ordua heldu da.

Aldaketa demografiko globala

Klimarekin, gatazkekin, goseteekin edo pobreziarekin zerikusia duten hondamendiengatik, ehunka milioi pertsona migratzen ari dira beren eskualdeetan edo mundu osoan zehar, eta ia 70 milioi pertsona desplazatu dituzte gaur egun beren etxeetatik indarrez. Horrek ezinbestean ondorioak ditu eta izango ditu hurrengo urteetan gurea bezalako gizarte zaharkitu eta linguistikoki gutxiagotu batean. Eraldaketa honek sortuko dituen astinaldien aurrean kultura eta komunitate erresilientea eraikitzea ezinbestekoa izango da.

Berrikuntza teknologiko esponentzialen inpaktua gizartean

Hurrengo urteetan, adimen artifizialak, bioteknologiak, digitalizazioak, gauzen internetak etab... eraldaketa sakonak ekarriko ditu gizartean, hala nola lan munduaren, hezkuntzaren eta kultura zein aisialdiaren eraldaketa goitik berakoa. Honek guztiak gizarte arrakalak handitzeko arriskua du, baita kulturen eta identitateen arteko arrakalarena ere. Eraldaketa hauei aurre egiteko gizarte zein kultur erresilientzia sendotzea ezinbestekoa izango da.

Erronka hauei guztiei aurre egiteko gai diren erakundeak behar ditu Euskal Herriak, eraldaketa honi guztiari aurre egiteko gaitasuna eta eskuduntza izango dutenak. Kanpo erasoen aurrean beraiek ere erresilienteak izango direnak.

Gure herriak arnas luzeko gogoeta behar du. Herri honetan egin beharreko apustu eta inbertsioek hamarkada luzeko hortzmugari begiratu behar diote, hauek tresna behar dute izan eta ez helburu. Aurrera begirako palanka behar dute izan eta ez lehendik zetorrenaren makulu soil.

Euskal Herriak, abiatu berri dugun hamarkada honetan, lurralde eta komunitate erresiliente, sozialki justua eta kohesionatua, errekurtsoen erabilera efizientea egingo duena eta ekonomikoki konpetitiboa izango dena izateko egin beharreko eraldaketa prozesuak definitu behar ditu, eta inbertsio estrategikoak norabide horretan egin.

Eta bisio estrategiko horrek gidatu behar du, hain zuzen, gure herriko eztabaida. Hurrengo belaunaldien ongizatea dago auzitan. Eta langintza hori herri honetako eragileoi dagokigu, eta ez egiteak ondorio larriak izango ditu herri honen etorkizun sozioekonomiko eta kulturalean, bai eta ondorengo belaunaldien ongizatean.

Telesforo Monzon laborategiak, horri begira eta bere ekarpena egin asmoz, **Euskal Herria 2036 PROSPEKTIBA LANA** jarri du martxan, 15 urteko hortzmugan bizi dugun eraldaketa global honen baitan Euskal Herrian eman daitezkeen eskenatoki deberdinak irudikatuz eta hortik sortzen diren erronka eta aukerak definituz.

Hurrengo urteetako erronka datozen eraldaketa guztien aurrean herri

2022KO MEMORIA

erresilienteago bat lortzeko beharrezko gogoeta egitea da asmoa, mundu mailan datorren transformazio osoari aurre egiteko gai izango den herri bati begira, bertan kokatzen jakingo duena, atzean geldituko ez dena eta horretarako beharrezko eraldaketak egingo dituen. Horrek askotariko gogoeta eskatzen du, inguruneari begirakoa, ekonomiaren eraldaketari buruzkoa, baina baita ere inklusioa, gizarte kohesioa edota identitatearen ingurukoa, zein honi guztiari aurre egiteko behar dugun erakundetze ereduaren ingurukoa.

Zergatik 2036? Batetik, prospektiba egiteko 15 urteko epea aski arnas luzea delako egun gizarteak etam munduak bizi duen abiadura kontuan edukita bai eta larrialdi klimatikoak zein eraldaketa digitalak munduari ezartzen dizkion erronkak kontuan edukita. Bestetik 2036 urtean gure herriaren etorkizuna bera kolokan jarri zuen gertaera bati (altxamendu faxista) emandako erantzun bateratua ren ehungarren urteurrena irudikatzen duelako. Orain mehatxuak edo erronkak desberdinak izanik ere herri honen erantzun bateratua eskatzen dute ezinbestean berriro ere.

Lanketa: Aurten SWPIk lanaren emaitza den azken dosierra partekatu du TMeLabekin.



Partekatuz/Sharing:

Euskal Herrian eman den gatazka eraldaketa zein nazio eraikuntza prozesua beste gatazka eta herrietako interesatuekin partekatzea helburua duen proiektua

Azken urteotan Euskal Herriko gatazka politikoak bizi izan dituen konponbiderako ekimenak, bai eta beronek bizi izan duen eraldaketak interesa piztu du nazioarteko hainbat eragile eta erakunderen partetik. Era berean, gatazka politikoaren baitan eman den nazio eraikuntza prozesuak ere sortu du hainbat eragileren artean interesa eta ezagutza nahia. Hein handi batean, Euskal Herrian emaniko prozesuak, bere txikitasunean bada ere, berrikuntzaren bidetik hainbat erronka propioei erantzun behar izan dio. Hori dela eta eskaera desberdinak izan dira Euskal Herrira etorri eta azken urteotan eman den eraldaketa eta burutu diren ekimen berezituak aztertzeko. Proiektu hau eskaera horiei erantzuteko jaio da.

HELBURUAK

- ➔ Euskal gatazkaren eraldaketa eta nazio eraikuntza prozesua, euskal abertzaletasunaren ikuspuntutik partekatu beste gatazka eta herrietako ordezkariekin.
- ➔ Gatazka konponbide eta eraldaketan aritzen diren eragile desberdinekin prozesu honetatik irteten diren hainbat ikasgai partekatu.
- ➔ Euskal gatazkaren konponbiderako oinarri izan diren gakoan hausnarketa burutu, honen bidez gatazkaren eraldaketa arloan ekarpena eginez.
- ➔ Gatazka eraldatzeko prozesuetan sortzen diren erronka eta zailtasun komunei buruz eztabaidatzea.

ESKAERARI EGOKITUTAKO BISITAK

TM eLab laborategiak aipatu helburua bete asmoz, jasotako eskaera eta beharrei egokitutako bisitaldiak antolatzen ditu Euskal Herrian, mintegi eta bilkuren bidez esperientzia partekatuz. Aztertuko diren gaiak eskaeraren arabera definituko dira, ondorengoak jasoaz besteak beste:

- ✓ EHko historia garaikidearen prozesu negoziatzaileen analisi kritikoa
- ✓ Pentsamendu estrategikoa

- ✓ Trantsizioa eta barne kohesioa
- ✓ Gizarte zibila. Mobilizazioa
- ✓ Alderdi eraikuntza
- ✓ Eraikuntza nazionala
- ✓ Armagabetzea

EZTABAIDA ETA MINTEGI TEMATIKOAK. TM eLab laborategiak, aipatu helburuekin, eztabaida eta mintegiak antolatzen ditu gai desberdinen inguruan, bake eta gatazka konponbidean aritzen diren eragileekin, gatazken eraldaketa eremuan praktika hobek erdietsi asmoz.

Aurtengo ekinbideak

Alemaniako Berghof Fundazioarekin batera mintegi itxi bat antolatu dugu, mundu guztitik etorritako 20 pertsona ingurukoa. Mintegia Europako Parlamentuko The Left taldeak babestu du.

Gaia:**Negoiatzaileentzat bermeak gatazka konponbidetarako negoziaketetan.**

Mintegia Ekainean burutu zen Arantzazun.

Ikusi txostena hemen:

<https://telesforomonzonlab.eus/summary-of-the-workshop-on-the-relevance-of-personal-safety-and-security-guarantees-for-peace-negotiators-advisors-and-advocates-during-and-after-peace-talks/>



Ongizate adierazleak:

Proiektu honen egitasmoa EHrentzako egokiak liratekeen ongizate adierazleen inguruko gogoeta bat abiatzea da. Zein adierazle beharko genituzke gure herriaren ongizatea definitzeko orduan?




UPV/EHUko Gizarte
Ekonomia eta Zuzenbide
Kooperatiboaren Institutua

Instituto de Derecho
Cooperativo y Economía
Social de la UPV/EHU

Iaz lanari jarraikiz, jardunaldi batzuk antolatu ziren GEZKIrekin batera Ongizatearen inguruan, Felix Arrieta eta Enekoitz Etxezarretaren Zuzendaritzapean. Koordinatzaile Mailen Domiguez izan zutelarik.

Aurten Malen Dominguezek Zeelanda Berriko kasua eta bere ikaspenak aurkeztu ditu Subiranotasun Masterrak antolatutako Nazioarteko Jardunaldietan.



KLIMARI BURUZKO HERRITARREN BATZARRA

XXI. mendean gizarteak dituen erronkak konplexuak dira eta, horregatik, horiei aurre egiteko eraldatze-prozesuek ikuspegi konplexu eta integralak eskatzen dituzte.

Gainera, egungo testuinguru aldakorrean ditugun gizarte erronken dimentsioak eta konplexutasunak, eragile ezberdinen arteko gobernantza eredu berriak, demokrazia molde berriak eta herritarren parte-hartze modu berriak sustatzea eskatzen dute.

Hori da hain zuzen ere abiapuntuko hipotesia, Erakunde, herritar eta gizarte antolatuaren arteko lankidetzaren sarea indartuz bakarrik erantzun ahal izango diegulako gizarte gisa ditugun erronkei.

Zentzu horretan, gizarte erronken inguruan agenda publikoan herritarren parte-hartzea sustatzeko eta komunitatearen ahalduntzea areagotzeko ikuspegi berritzailea aurkezten duten demokrazia deliberatiboko prozesuak geroz eta ohikoagoak bihurtzen ari dira demokrazia sendoko herrialde eta testuinguruetan. Aipatu demokrazia deliberatiboko prozesuetan ausaz aukeratzeko dira gizartean aniztasuna ordezkatzeko duten herritar taldeak, jorratuko diren gaietan adituena aldetik formakuntzak jasotzen dituzte eta eztabaidarako espazioak ahalbidetzen dira.


Prozesu horiek ez dira berriak, 60. hamarkadatik erabili izan dira formatu anitzetan, egun ordea, esperimentazioari bide eman zaio beraien helburua eta diseinua definitzerako orduan, zein parte hartzeko eta instituzionalizatzeko beste modu batzuekin konbinatzean. Herritarrak agenda publiko eta politikoan inplikatzeko modu berriak aurkezten dituzte, eta balioetan oinarritutako dilemak, merkataritzako trukeak eragiten dituzten arazo konplexuak eta epe luzeko arazoak jorratzeko baliagarriak direla aztertuta da OCDE-k kaleratutako ikerketan .

Proiektu honen helburua da Klimari buruzko Herritarren Batzar bat diseinatu eta abian jartzea izan da, Gipuzkoan eztabaida-demokraziaren prozesuak eta ikuspegiak aktibatuz. Gizateriaren bi erronka nagusitan esku-hartu nahi da hortaz, krisi demokratikoa batetik eta krisi klimatikoa bestetik, deliberazio demokratikorako prozesu berritzaile bat abian jarri.

Herritarren batzarrak herritarrek inplikatzeko, agenda publiko berriko erronken inguruan zein horretarako eskumena duen erakunde publikoak bultzatuko dituen herri politikak herritarren iritziak edo gomendioak kontutan hartuta diseinatu daitezzen.


Aurtengo Ekinbideak:

- Mondragon Unibertsitatearekin batera, Martxoaren 15ean HUHEZIKo Campusean **online jardunaldiak** antolatu ziren, kanpo esperientzia ekarriaz gurera (Irlanda, Frantzia eta Eskozia). Era berean Deliberativa eta Arantzazulabekin batera gaia Euskal Herrian kokatu zen.



Informazioa hemen:

<https://telesforomonzonlab.eus/demokrazia-eredu-berriak/>



- Gipuzkoako Aldundiarekin landutako Klimaren Herri Batzarraren baitan, Aldundia eta Arantzazulab ekin batera **Nazioarteko jardunaldiak** antolatu ziren Eskozia, Danimarka eta OCDEko hizlariekin Donostian.

Informazioa hemen:

<https://telesforomonzonlab.eus/xxi-mendeko-demokrazia-eredu-berriak-asanblada-herritarrak-edo-demokrazia-deliberatiboa-gogoeta-jardunaldiak/>



-Azkenik Azaroan **Klima eta Landa eremuaren Herri Batzarra** hautatu eta martxan jarri zen, egun 32 herritarrez osatutako herri batzarra deliberazio prozesuan delarik.



Ikusi proiektua hemen :

<https://www.gipuzkoa.eus/eu/web/herritarrenbatzarra/zer-da>

Proiektua lurraldeko ekosisteman gizarte berrikuntza, gobernantza zein herrigintza prozesuak bultzatzen dituzten eragile ezberdinen elkarlanaren bitartez sustatu da.

Proiektuan zehar prozesu deliberatiboak diseinatzeko ikuspuntu, ezagutza aniztasuna, adibide, erronkak eta aukerak jaso dira. Gainera, proposamen honetan jasotzen den esperimentaziorako proiektua gure herrian sustatuko diren beste ekimen eta prozesuekin konektatu nahi da. Azken helburua demokrazia deliberatiboa herrialdean instituzionalizatzeko baldintzak sortzea da.



Euskal Komunikabideak eta Nazio izaera

Eusko Ikaskuntzak 2018an idatzi zuen, bere 100. urteurreneko kongresuaren garaian, *Kohesioa eta Elkarkidetzaren eraikitzen: Euskal Herriko lurralde(ar)en liburu berdea*-n: “Nazioa ez da behin lortu eta betirako daukazun titulua. Egunero-egunero elikatu behar da. Eta komunikabideek berebiziko garrantzia dute hor”.

Joseba Sarrionandiak idatzi izan du “komunitate batek, elkartasun minimo bat mantendu nahi badu, hitzak konpartitu” behar dituela, eta “euskaldunek dugun heterogeneitate territorial eta kulturalarekin, elkarren arteko harremana” iruditzen zaiola “premiatzkoena”; “nazioa komunikazio espazioa da batez ere”.

Potentziala

Euskal Herria aintzat hartzen duten hedabide ugari dago gaur egun: EITBkoak, EHKEkoak, Noticias Taldekoak, Berria Taldekoak, *Argia*, Euskalerrria Irratia, Euskal Irratiak, udalerrietako eta eskualdeetako komunikabideak... Euskal nazioa eraikitzen segitzeko ekarpen handia egiten dute.

Dena dela, hedabide klasikoen artean, Euskal Herria aintzat hartzen ez dutenek askoz audientzia handiagoa daukate gurean, baina ez da gutxienekoa euskal nazioaren aldeko hedabideen audientzia. CIESeko datuen arabera, Hego Euskal Herrian iaz: EITBk (telebista, irratia, Internet) 1.235.000 ikus-entzule izan zituen; Noticias Taldeko lau egunkariak 141.000 irakurle; *Gara* egunkariak 60.000; *Berria* egunkariak 44.000...

Potentzial handia dago. Jarraitzaile kopuruaz gain, hedabide nazional horien denen artean jarduera handia dute komunikazioko formatu guztietan, kalitateko kazetaritza egiten dute, ehunka laguneko lantalde profesionala daukate, herritarrekin komunitateak eratu dituzte...


Gainera, bateratasun eta elkarlan prozesuak egiten ari dira, kultura hori lantzen dute. 2000ko hamarkadaren bukaeran hasitako krisi ekonomikoak hedabideak ere gogor jo arren, eta komunikabide klasikoak XXI. mendean krisi partikularra bizitzen ari diren arren ere, Euskal Herria aitortzen duten hedabideen arloan eman dira aurrerapauso batzuk azkeneko 15 bat urteetan sinergien ondoren. Batzuk aipatzearen: 2005ean Noticias Taldea sortu zen; 2006an Hamaika Telebista; 2012an Hekimen elkarte; 2012an ere, Tokikom toki komunikabideen bateragunea; Ipar Euskal Herriko hedabideen bateratasun prozesua egin da; eta bestelako proiektuak ere sortu dira (Naiz irratia, herrialdeetako *Hitza* egunkariak, Euskarazko Wikipedia...), edota baita EAEn instituzioen eta euskarazko hedabideen arteko mahaia ere.

Ahulguneak

Hala ere, eta *Hedabideak eta euskal nazioa* gaiari gagozkiola, komunikabide horien eguneroko praktikan sarri euskal nazioaren desitxuraketa ere gertatzen da osatu dugun txostenean.

Esaterako, Lapurdiri deitu izan zaio Frantzia; lurraldetasuna ez da behar bezala hartzen kontuan informazioa ematean (datuak, mapak, terminoak...); euskal izenak ez dira euskal grafian jartzen; sarri Espainia / Madril da epizentro...

Hori guztia dela eta TmeLab-etik euskal hedabideekin erreflexio prozesu baten beharra partekatzeko prozesua abiatu dugu, Eusko Ikakuntzarekin batera.



**EUSKO
IKASKUNTZA**
Asmoz ta Jakitez

GAINDEGIA



Laborategitik aurten Gaindegia berriro martxan jartzeko lanean jardun dugu. Rafa Diez izendatu da laborategiko ordezkari Gaindegian eta aurtengo adierazle txostena, Ipar Hegoa fundazioarekin batera babesteko konpromisoa hartu dugu.

BESTELAKOAK

Laborategi gisa hainbat ekimenetan ere partu dugu:

- Kontseiluaren Batuz ekimena.
- Subiranotasuna Europako herrietan masterraren Nazioarteko konferentzia.
- Aberri Eguna dela eta gutuna ALC, SAF eta Arantzazulabekin batera.
- Xabier Solanoren hitzaldia Gure Esku Dagorekin batera.
- Euskaltzaindiaren euskararen inguruko gogoeta batzordea.
- Etorkizuna eraikiz kongresua.
- Arantzazulabeko aholku batzordea.

Web Orria, twitter eta Buletina

Telesforo Monzon laborategiaren web orria berrituta dago, bertan jasotzen direlarik egiten diren jardun eta ekimen desberdinak. Era berean youtube kanala eta zoom zerbitzua jarri dugu martxan. Era berean, aurten twitter kontua abiatu dugu eta une honetan jarraitzaileak 1000 tik gora dira.



Azkenik mailchip bidezko buletina zabaltzen dugu, oraingoz 250 bat kontaktura zabaltzen dugularik





**TELESFORO
MONZON**
eLab